

MUNIBE (San Sebastián)

Sociedad de Ciencias Naturales ARANZADI
Año XXIII. N.º 4. 1971. Páginas 423-428

ETNO-GAIAK

ELOSEGI-TAR J.

IZTEGITXOA.—Kokotartean, ipiñitako erri ta urteetan, nik neronek entzunak.

ABELARTE.—Entre viga. (Ganbara-mandiotan, abe-tarte bakoitza. Askarate, 1966)

ALMIZTU.—Belarra galdu, zakartu... ez moztuz. (Amezketa, 1943)

APALA.—Descansillo. Koba ta leizeetan izan oi dira. (Aralar, 1945)

ARNARRA.—Enfilación de rocas. «Ez al dezu ikusten, an... arnarran barrenean...?» (Askarate, 1943)

ARZAKURRA.—Perro de pastor. (Amezketa, 1946)

AURIZ.—Ahullando. «Otsoa, auriz, entzuna nago ni!» (Askarate, 1946)

AXANDILLOA.—La Mariposa (Uztegi, 1968)

AXKOLA.—Lenteja. (Askarate, 1965)

BALATEGI.—Arruitz'eko «Petrene» etxeán, sarrera gainean, ezker aldera, leio altaua, gari-balak, bertatik larrañera botatzeko. (Arruitz, 1966)

BIDENABAR.—De paso, mientras tanto... (Askarate, 1944)

BURTZIÑE.—Burnizko palatxo; labeko autsek eta ateatzeko (Gaintze, 1966)

BURUSIE.—Malloan, udaraz, egin oi dituzten belar-fardoak. (Araitz, 1943)

DOMINGO SANTU.—Santu-guzien eguna. (Aralar, 1945)

EGOARRITOA.—Malloan amiltzen diran elurtak. Avalanche de nieve. (Araitz, 1945)

EGOIA.—Viento sur. (Lazkau, 1946)

EIÑERIA.—Golondrina. (Etxarri-Aranatz, 1947)

EIÑERE-XAGUA.—Murciélagos. (Etxarri-Aranatz, 1947)

ERDIBANDU.—Partir a medias. (Uztegi, 1943)

ERGUNE (G) IE.—Comadreja. (Askarate, 1967)

ERLO.—Estrato, lote de rocas... «Ez al-dezu, an erlo bat ikusten?» (Amezketa, 1943)

- ERTOAK.—Sukaldean, egurrek legortzeko tokiek. (Ataun, 1947)
- ET SIPEN.—Resignación. «Or bizi denak ê, etsipen aundia bear du izan!». (Lazkau, 1943)
- EUZIE.—El derrumbadero. (Askarate, 1965)
- EZUERI.—Reuma. (Gaintze, 1963)
- GARRANGA.—Otsoen aurka, zakurrek, erabiltzen zuten lepoko ubel zabala, pintxo luzeakin. (Askarate, 1965)
- GARBINDUE.—Esnea, pertz-kerue artzen dunean. (Aralar, 1944)
- GORBOLA.—Gaztain-alearen «mintza». (Alegi, 1943)
- INGURAYA.—El guarda, el vigilante. (Arbazu, 1965)
- IRMO.—Firme. «"Indiano-etxe"ko pillare oek irmo daude». (Betelu, 1966)
- IXURI.—Vertiente de tejado. «Ara or Imaz-berri lau ixuriko etxea». (Laskau, 1943)
- IZARBERA.—Propenso al sudor. (Azkarate, 1946)
- JARRITOKIE.—Exertokie. (Sakana = Barranka, 1947)
- KABAAN.—Aziendak, asarre, «desesperatuta», dabiltzanean. (Askarate, 1966)
- KARREPEA.—Txabol-ataria. (Aralar, 1944)
- KOLAXTU.—Ardie, estulka asi, ta... ill! (Askarate, 1968)
- KOZKORMALLU.—Soroko zokorrak jotzekoa. (Askarate, 1965)
- LAIOBE.—Iparbegiko parajea: ozpela: nekez jotzen eguzkiak, goizetan. (Gaintze, 1944)
- LEPO-UZTAIE.—La clavícula. (Barabar, 1948)
- MALLA-ZOTZ.—Malloan, belarretakoan, egiten diran «loteak»... iñoi, zozketan banatzen zienak. (Amezketa, 1943)
- MATXARDA.—Gaztaña-alea biltzeko kakoa. (Gaintze, 1965)
- MENTOITZE.—Malloan, segatzen ez dan tokie. (Askarate, 1965)
- MUARRATU.—Arbolari adar zarrak kendu, berriak eldu ditezen. (Gaintze, 1965)
- MUSKILLA.—Txabolako ipurtalkie. (Aralar, 1947)
- OSTILLEKO.—Arco iris. (Gaintze, 1965)
- TXIBIKE.—Txistorrak egiteko enbutue. (Askarate, 1966)
- TXOLORTA.—Huevo podrido. (Irañeta, 1965)
- TXOLORT-URE.—Agua sulfurosa. (Irañeta, 1965)
- UGALDIA.—Río. (Arbazu, 1965)
- USIRE.—Estornudo. (Gaintze, 1963)
- ZARTANA.—Gazteñak erretzeko danboliñe. (Ataun, 1947)
- ZATAN GOAITTIK.—Ataduras de la abarca. (Aralar, 1947)
- ZELEMEN.—Au ez det nai... ori ez dao ona... (milindroso). (Askarate, 1969)
- ZURDE.—Vello. «Zurde ona onek...» (Aralar, 1945)

ESAERAK.—Ka kotartean ipiñitakoeri itzez-itx jasoak.

Nê muturra jiratuko dun gizonik eztek azaldujo gaur bidean!! (Joxe Antonio Arretxe-k, Amezketa-n, 1943).

Negun, Uztegi-n, gizon baño asto izatea obea ûk. («Etarte»k, 1943).

Ekarri, aundikoa, iturri au ... («Allapun-iturria goratuz, Pedro-Miel Auntzaiak, Aralar-en, 1942).

Sue t'ure beaunez beiti ... (Pedro-Miel Auntzaiak, txabolan. 1944).

Lengo zarrek esanak, egik tie!! («Zuloeta»ko Grazian-ek. 1942).

Arraldua aleina ... kondo!!! («Porreta» artzaiak, txabolan, 1944).

Axarie ... izena dun bezelakoa da, bai ... ! («Porreta» artzaiak, txabolan, 1944).

Iruña!... kanpantorre beltzez obeto jantzia zaude gizon prestuz baño!!! («Porreta» artzaiak, Be-loki-menditik, Iruña katalejox ondo begiratu ondoren, 1944).

- Eltzea egarri bada, ude botaozu...! («Otselizarra»ko Periko artzaia, neri, txabolan, 1945). Txerrie mizpiltzen ari dire...! (Txerri il-berria lastoz erretzen ari direla). (Intze, 1945. «Juan-sendo»nean).
- Aoberrituta ekarri det labana.—He traído afilado el cuchillo. (Artzaia, txabolan, 1945).
- Gauze gora dijoanean, denak tratralari! («Sasian» artzai zarrak, Beaskin-go txabolan, 1945).
- Duroko gazta obea, bireako, iru duroko ollaskoa baño. (Barabar-ko «Txikito»k, 1945).
- Iru gauze die alperrik galtzen deenak: basoan egurre, eroan indarrak, ta pobrean arrazoia. (Pedro Migel Auntzaia, txabolan, 1945).
- Demonio petrala! Sustantzkoa atea aiz alajainkia!!! («Etarte» artziak «Zabalain»go Migel multikoari, 1946).
- Kable dun etxeán, ogeitamar gizon pesta-egunez, eztie bilduko Ataun-en!!!! («Zuloeta»ko Grazian-ek, pezta-bazkarikoan, nik Ataun-en, etxe geienak belar-kablez ornituta daudela esan nunean, 1946).
- Ataun eta Zegama-n eunez ikusi ta gabez eraman. (Gaintze-n, 1946).
- Koko demonio ôk... trasteak die gogotik!! («Etartel» artzaia, barrankesengatik, txabolan, 1946).
- Nerbio beroko gizona duk ori... («Sasiaín» artzai zarrak, beste batengatik, 1946).
- Zatoa beti lurrean!!! (Ardoa beti fresko eukitzeko, alegia. Lazkau, 1946).
- Aurten ezta kintoik Uztegi-n... Antzu-urtea! («Arrazti» artzairen esana, 1947).
- Txotx-urdiñe. Jolasa. Lurrean arrastoa egin, Arrastoan atzetik bi oñak ipiñi, esku batez bakarrik soña lur-gañean eutsiz... aldan urrutienetik txotxa lurretik jaso... ta golpe batez, baso-in-darrez bakarrik zutitu. («Etartek», 1947).
- III-berritu, ill onen amarrean egingo (d) u. («Arretxe», Amezketa, 1947).
- Erre nai al duk, Juanagorri, nik.—Ta ark: Ez... petxue presko auki nai diat nik... (Aralar, 1941).
- Goiz jeiki, goiz gose... Berandu jeiki loz ase. (Morroiak nausiar. Aralar, 1948).
- Gernue egin bear dut. (Tengo que orinar. Arbazu, 1948).
- Esnatu nauk... eta arri einda. Ura otza... (Zaldibi, 1948).
- Zorra ezin aiñe... oi duk gizonentzat makurrena. (Grazian «Zuloeta»k, 1948).
- Lauko baten ogie, ta lauko baten ardoa. Au izatan omen zen San Migel'en, 1900 inguruan, ama-lau urtez beikoen bazkaria.
- Epelenean e(r)e, gaba kanpoan trixte da. (Joxe Mari «Kantari»k, Askarate, 1964).
- Peztako denborak... jun dira nereak... (Askarate, 1964).
- Jendea, latz ibilli da garotan atzo... (nik). Erantzuna: Aurrako temporal orrek opor eman du-ta... (Patxi «Esolarte»k, Askarate, 1964).
- Gizone gabez ondo deskantatzeko... ontza dabilen tokia... oixe. (Patxi «Esolarte»k, Askarate, 1964).
- Gizone gizon, saskipetik e(r)e... (Askarate, 1965).
- Askarate'ra zoaz... joko zaitue mazoaz. (Betelu, 1965).
- Gaintze t'Intze, infernuko atarien giltze. (Betelu, 1965).
- Jainkoak laguntzen bait... biar eztue San Migel'en nee ankaik ikusiko. (Juanagorri ibilkariak. 1952).
- Magdalena bero, gaztañe ero. (Mikela «Iriarte»k, Askarate, 1965).
- San Bartolome ezkeo, mendi txikiak itzal aundie. (Azkarate, 1965).
- Ez iltzea au ez asmatzen... ta gizon zarra gaztetzea ere ez... «la mierda». (Eltzaburu'n atton zaretek, amorrazioz, 1954).
- San Agustiñ-ek... esku batean aizea, ta bestean eurie. (Askarate, 1965).
- Mundu ontan, denak igualak ez gintezke (gizonok)... eskuko beatzak bezala. (Alli, 1965).
- Askotan ez du aitzeak balio, lanean... (Nekazarriengatik, Askarate'n. 1965).
- Gaur ari gaiztoan zarie. (Está Vd. hoy de mal talante). (Oderitz, 1965).
- Bidenabarrekoak bi baliyo du. (Lo «de paso», vale doble). (Askarate, 1965).
- Abendue; gau uts, jai uts. (Mikela «Kantari», Askarate, 1966).

Illeen ogeitazazpia nolakoa, urrengo illea alakoa. (Egoaldi denboalez. Askarate, 1966). Topatuko du, bai. Astoa ezta arkakosoa ta... (Etxean; astoa galdu ta nausia eske abitu dianan, etxeokoandreak esana). (Askarate, 1966). Ez, ez, ez... ez det olakoik batere aitu... jare (jare = ezertxo, «ni rastro»). (Albiasu, 1966). Sue illun, artoa biguñ, nausi-etxeokoandreak asarre... ni ordun artoz ase. (Garai bateko morroiak. Mikela «Kantari»k, Askarate, 1967). Maiatzeko sugeak, urte guziko berdetea («Domingone»ko Juanitak, Askarate, 1967). Buru audi ta lepoa mee, ni Gaintzeka, Jaune («Altzone»ko Martin Migel'ek, Gaintze, 1967). Askaaten alkate baño, Lakuntze-n zerri-zai obe'uk (Migel «Kantari»k 1918). Karga jasotzeko baño, kontue jasotzeko obea eoten du gaztetan umea. (Intze, 1967). Apezan kapa alki pean... apezan kapa alki pean (Oso aguro esan bearrekoak. Askarate, 1968). Arantzadi-Elkarte-rako suge billa nebillen ni ... ta auxe aditu nun: —Sugea?... loteri ona baño su-ge geyo izango'uk emen, udar ontan. (Askarate, 1968). Goiz bazen, berandu bazen... garizuma negu zen. (Askarate, 1969). (Bizente «Martizko»kin (76 urte) izketan.) Billabatxoa zaitzen topatzen det, eta. «Aurtzai, Bi-zente?»-nik. Ta: «Bai, Jexux. Gizonaren azken opizioa». (Uztegi, 1967). «Goiz zabiltza, Mikela?»-nik. Eta: Bai ... bareekin batean, arrastaka!!! (Mikela «Iriarte», Askarate, 1967).

ASMAKETAK.—(Askarate'ko Joxe Mari «Kantari»k esanak, 1964).

Basoan jayo, basoan bizi, etxera etorri, ta nagusi. (PILLAREA).

Txiki-txiki biribil urean irabi dabil: buru audi buztan luze aren billa dabil (BURRUNTZALIA BARRUN BILLA).

Or orri. emen orri, berreun zankagorri. (GAROA).

Or zulo, emen zulo, berreun ipurzulo (GAZTAÑA ERRETZEKO DANBOLIÑE).

ZENBAIT KONTU EDO IPUI

Beteluko txistularie.— Lakuntze-a eman tzuen bein Betelu-ko txistularie, da an pestak pasa ittu ... Iru eun pasa eta eldu da mendiz Betelu're, da Unako putsu ondoan eldu zela, otsoa atea emen zitzaison. Ta, otsoa ... olaxe, aurreko aldean, da gizona larri!!!! Larritu zan da erorka ein du ... ta «tum» danborrak jo dio ... ta otsoa zut-zutik jarri emen tzaio... ta bestea asi zaio danborra jo-tzen, ta ordun ondatu ta espakatu emen tzen otsoa... ta andi aurrea, txibilitue ta danborra joz sartu emen tzen erruin!... Baño, geoz, ez emen tzun onik izan. Nik ala aittu izan nun nee ume denboran. (Askarate-n, 26-XI-1966.)

Azariarena.— Bein, azaie zuloan emen tzegoan ta... kanpotik sue egin dioe. Arbaztakin sue... Ta azaiek, barrundik kontestatu emen tzien: «Arba-su, kakasu... arba-su, kaka-su»... —«Enborrakin egin bear zioau oain» kanpoan pentsatu emen zuen, da... ein emen dioe enborrakin sue, da... geo kontestatu emen tzien... —«Enbor-sue a ze sue... enbor-sue a ze sue»... —Ta: «Goazen, goazen emendi»... ta alde ein emen tzuen. (Gaintze-ko «Matxindo»n, 23-IV-1967.)

Gauzek izketan.— Gue amak-eta (umeak giñela) esaten tzuen, gauza guziek izketan bazeakiela... da ooldioak bakarrik etzeakila... da arei eakusten ai ziela, danak aaztuta gelditu emen tzeen... gañekoen izketa dena aaztu emen tzen!! «Matxindo»ko Martin Joxe'ek. Gaintze, 23-IV-1967.)

Araiztarren letaria.— Atallo-koak, basakak. Arribe-koak, fantasiosak. Askarate-koak, adar-jotzaileak. Uztegi-koak, sesiozaleak. Gaintze-koak, ezkillejotzalleak, ta Intze-koak, marrajoak. (Gaintze-n, 19-III-1965.)

Argi-illun-usaie.— Goizeko iruek-lauetan izaten da oi... Gue atton zarrak esaten zun: «sorgiñek izan dituk emen»... Goizaldean, iruetatik aurrea, garbi dagon garaien... negun igual, garbi badago... Usai aparta da bestenetik... egunekoa ta gabezko momentoan usaie... Lañoakin ez det nik sakulan somatu... tiratu, jan ein eiteio... Leku soto oiek (Anduitz, Askarate, Larrondo...) eztie txarrak ortako!!! (Joxe Antonio «Artetxe»k. Amezketa, 8-III-1948.)

Sorgiñek.— Martolo-k, andrea, sorgiña omen tzun. Erretiro txarreko gizona zen. Intze-koa zan bea, ta ba omen dator Betelu-tik etxera, beandu-beandu... Kuabe txarrak ba omen die an... ta atea omen zaizkio lau sorgiñ... kate-soñu ta ixillua ba omen tzekearen. Zalditik jetxi zen Martolo ta esan zien... «Milla-berrogei»... ta makillez kolpea tira ta... ta ez omen tzun ezer arrapatz... sorgiñak paitzien!! Bere andrea lauetako bat: gaxtoena: zakurgorri bat, kate-soñuz, tirikiti-tarraka!... Zaldie kapestrutik artuta eterri zen Martolo, erriko-maxu Balerdi-neaño, ta. —«Balerdi»!! oju egin omen tzun. Ta apaizak, Balerdi-ri. —«Beidok geo, ez mogitu... olako ek, eta... dabillela nai bau».. Utzi ein tzion. Geo, segitu u, Martolo-k zamaletik zaldia zula exeaño ... alleatu â... ta lentxeo sorgiñek kalmatu ... Atea irikitzeo, andrei... ta andreak atea iriki ta ... Martolo sartu orduko muturrez aurrera erori ... ta andreak erritan. «Erretiatzeko zeenbat egiñal eiten deû ta olako baten bateen-batek zebait oker egingo'izu» ... Martolo erori zen garaien, etxeko ganadu guzie makakorroz asi, ta zuntoiak eta kateak eten eta libratu omentzeen (Joxe Antonio «Artetxe»k, Amezketa, 8-III-1948.)

Beste sorgin-kontue.—Martolo-k bi seme omen tzitun, ta mendin eukitzen... etxeen etzien eiten da... makillez ebakitzen zitun-da!! Jun tzen, Martolo, eun batez, mutillêta, Ormazarreta aldea, ta txabolâ arrimatzen zaneko, bertan arrapatu biak... bat atera, kanpora, ta makillekin eman pasada bat ederra, te beekin artu... Illuna zen... ta Illobi-ko esira iritxi ziranen... aberea zeon an, silla berri-berrie, «ttaka» gañeen jartzeko modun. Mutilla omen tzen aurretik, ta aberea ikusi zunean... —«Zer da emen?» esan omen tzun. —Ta aitak, makilla artu-ta: «Milla-berrogei! Ze eittén emen». —Bota zion puntada, ta ala izkutatu omen tzen aberea. Etsun ikutu-re ein, sorgiña Zan-da ... bere atsoal!! (Joxe Antonio «Artetxe»k. Amezketa, 8-III-1948.)

Plazaola-ko trena.—Eun da zazpi urtetan il tzen gure amandrea. Ataundarra zan berez... Iribes-era esposatue, ta Iribes-en ille. Garai artan atera emen tzen trena, Lekunberri-tik Plazaola-ko trena ... ta ala esaten omen tzun gure amandreak: —«Ez geo sartu neskatoak —alabei esate emen tzien— etzaiteztela sartu. Aziendaik gabe juaten dena ezta arte oneko... etzaiteztela sartu!!» (Errazkin-go «Joanpitz»eneko etxeokoandreak, 83 urte. 2-V-1967.)

Aldatz-ko uxoa.— «Ni Aldatz-en oain lauetanogei urte edo, neskame nintzela, eiziin ibiltzen zen nausii... ta, bein ekarri zun belee; ta beste bein kattagorri; ta geo... etzun geio ekartzen. Ta nik: «Oain'ê eztu deus ekarri!. esaten nion ... Ta: «Eztut'pa ekarri.. Ta: «Bueno, bueno.... Ta geo arrek uxoa ekarri zuniin ni enitzen etxiin: euntzin eo nimbait nitzen-da. Etorri nitzeneen esan tzeen: «Oain ekarri'ut pa uso, Alejandra!.. —«Bai?». —«Bai». —«Ola», ola», esan nion. da ... «Ekarri iezu ikusteko» esan tzun da... Etxekoandreak esan tzion: «Nik jaso'et ta daola» ... ta orduko katuek emana euki!!! Etxekoandreak ba-zakin ... Biamonean jan bear tzun uxoa ta nik esaten nion: «Oain ze'in beauzu? Errixtatu'ku'!!!»... «Ba!!». Ollaskoak baseuden etxiin, ta ollasko paatuko ziola... «Bueno, ba» ... ta boamonian ze'in giñin? ... Ollasko'at il da lumatu, ta paatu zun gixatuta, majo, kaxuelan... Aixe ezautuko zula esaten nion nik etxeokoandrari ta... «Eztu ezautuko, ikusiko'uzu, eztu ezautuko» ta... aizen jaten, da aizen jaten da etzun deus esaten! ... Geo etxeokoandreak esan tzion: «Goxoa dao?», ta; «Bai. Oso goxoa dao! BASA-KERA PIXKOAT BADAUKE, BAI!!! Baño oxo goxoa dago!!! Utziko'izit pixkoat» ... Da, utzi zigun ...ta ni, atea sukaldeti ta ukullue joan nitzan... naiko parra an ein nun! Nik enun uste arrek ezagutuko eztunik, exurretan-eo. Bateeza ezautu!!! (Iribes-ko, Alejandra Elberdin-ek, 93 urtetan. 3-VI-1967.)

Iribes-ko dantza-soñuk.— (Nik galduet: «Zuen gazte denboran zer tzenduten, plazan dantzatzeko-ta?). —«Danboliñe izaten tzen. Txuita-ko Pontxo. Nik ongi ezautu niin... dantzatu ere bai, arrek jota: danboliñe bikaña zen. Ta jaietan berriz, panderetakin, neskatzek jota, ibiltzen giñen... «Zuita» berriz San Juan-eten etortzen zen, ill onen ogeitalauean izaten tzeen pestak, eta ordun ... eta laute(r) itan'ê bai, iaute(r) itan etortzen tzen ... piperropiila eiten tziin neskatzek, ta mutillek eske etortzen tzeen'da... neskatzekin dantzan, ta bat eo beste moxorrez jantzi ... baño gutxi, emengo apezak etzien nai izaten moxorrok eta alakoik ikusi... Pontxo oi semeekin etortzen tzen; bi zoztakakin danbor aundii semeak, da beak berriz, txulubite ta danboliñe txikie...

Pontxo-n semeek'ê ongi jotzen zun txulubite... Akordeonare joken tzun aren semeek... ingurue
jotzen tzun majo asko ...

(Dantzakoan kantatzen ziren bertso batzuek) :

Goizean goiz tabernara ta etxera berandu,
a zer mutikoak gu, errenta bagendu!
Gure aitak itz ori bost aldiz esan du:
«Nere denboran ez nak orrela izandu».
Erri batean iru mutil lagun artekoak
Arrantxu baterako a zer mutikoak.
Tabernan egoteko sosegu obekuak
Dankan ere emen dira gu bezelakuak.

ELOSEGI-TAR J.

Askarate, 26-XI-1969.